

EIZAGA-ETXEBARRIA



XVIII. mendeko etxe baten aurrean gaude, gaur egun erabat eraberritua badago ere, armarría oraindik gordetzen duena. Argazkia berreraikuntzaren aurrekoa da.

ERAIKUNTZAREN KANPOKO ANALISIA:

Eraikuntzaren ezaugarri azpimarragarriena bere armarría da: Bertan inskripzio bat topa dezakegu 1717an ezartzen duena armarría, eta Eizaga-Etxebarriatarren jabetza bezala definitzen duena armarría behintzat. Hau baieztatuko digu armarríaren estilistikak, XVIII. mendekoak baitira, loreak izanik armarría inguratuz, eta kasko bat armarríaren gainean. Santiagoko maskor bat ere aurki dezakegu armarrían, Ermuko beste askotan bezala; horregatik uste da herria geldileku garrantzitsu bat izango zela Santiagora zihoazen erromesentzat, bidea herritik bertatik pasako ez bada ere, gertu pasako baitzen.

Ezin dugu ziurtasunez esan etxearen gainerakoa XVIII. mendekoa denik, baina bere ezaugarriei erreparatu ezker, garaiko etxe xume bat izatea posible litzatekeela uste dugu. Hauek lirateke ezaugarri horiek: zabalera baino altuera handiagoa, material merkeekin eraikia, eta armarría kenduta, luxuzko elementurik gabe gainerakoan. Harlangaitzez eginikoa izango da, aurrealdea igeltsuz estalia eta pintatua zegoelarik.

Erdi mailako etxe bat zela adieraziko digu leihoetako balkoi ezak ere, balkoiek bizi kalitatea hobetzeko balio baitzuten, etxe aberatsetan askotan izango baitzituzten. Leiho zuloek ez dute ia apaindurarik izango, beheko pisuko harlanduzko dobelak kenduta. Etxeko leihoen simetria zainduko dute hala ere. Etxearen egitura hiru pisu eta ganbara batekoa izango da, ganbarak leiho txikiak izango dituelarik, aireztatzeko.

Armarriaren eta etxearen jabetzaren inguruko hipotesi bat ondokoa da: Beharbada, etxe herrikoi bat izango zela, Eizaga-Etxeberriatarrena, Ermuko zenbait biztanleri alokatua. Beharbada jabeak lehenengo pisuan biziko ziren, luxurik handieneko pisua. Ezin dugu barnealdeari buruzko informaziorik eman, eraberritzearen aurretiko barnealdea nolakoa zenari buruzko informaziorik ez baitugu, eta egindako eraberritzearen ondoren, zenarekiko inongo zerikusirik ez baitu barnealdeak. Herriaren zabaltze faseren batekoa izango da ziur aski etxea, XVIII. mendean emango zena, behin XVIII. mendeko krisi ekonomikoari gain artzen hasitakoan, arma produkzioaren hazkundera batez ere. Errota eta etxe ugari eraikiko zituzten garaian, hauen berririk ez badugu ere, 1794an frantsesek herria erre zutenean, Konbentzio Gudaren barruan, etxe eta errota hauetariko asko erre egingo baitziren.

JABEAK:

Berezko jabea Eizaga-Etxeberria sendiko kideren bat izango zela uste dugu, armarria hor egotearen arrazoa jabegotasuna erakustea izanik. Dokumentazio falta dela eta, ezin dugu ziurtatu ea Eizaga-Etxeberria hauek Zaldibarren baserri eta lurak dituzten berak diren ala ez.

Geroagoko jabeek dagokienean, jakina da gerora Mallabiako gizon batena izango zela, "Ardinarrukua" ezizena zuena, inauteri batzuetan ardi narru bat jantzita ardiz mozorrotu baitzen. Jakina da baita ere 70eko hamarkadan "Kajonerakua" ezizena emango zitzaion etxeari, aurrezki kutxa bertan egongo baitzen.

EGUNGO EGOERA:

90eko hamarkadan Alboka Musika Eskola bihurtuko zen, eta erabat berreraikiko zen erabilpen honetarako, eraikuntza botaz eta berreraikiz ondoren, nahiz eta leiho zuloen posizioa errespetatuko den, eta armarria ere berrezarriko zen bere lekuan.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *"Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena"*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Pinedo, J.A (1996) *"Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak"*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.

KOLABORATZAILEAK:

- Ricardo Carro

EGILEA:

Maddalen Zabaleta.